

ZER DA UTB?

La **UTB** da **urteko tasa baliokide**.

Urtean kreditu bat zenbat kostatzen zaizun jakiten laguntzen dizu.

Hauek sartzen dira:

- ITNa, maileguaren interesa.
- Ordaindu beharreko beste kostu eta komisio batzuk.

Zergatik da garrantzitsua UTB?

UTBak hainbat kreditu konparatzen laguntzen dizu eta gehien interesatzen edo komeni zaizuna zein den jakitea.

UTBa zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta merkeagoa izango da kreditua.

Adibidea: bizikleta elektrikoa erosi

Imajinatu bizikleta elektrikoa erosi nahi duzula 3.000 € balio du.

Kontsumorako 2 kreditu eskaintzen dizkizute ordaintzeko.

Kontsumorako lehen kreditua:

- % 10eko ITNa
- 65 €-ko gastua, ikasteagatik eta kreditua formalizatzegatik
- % 15eko UTBa
- Ordaindu beharrekoa, guztira: 3.230 €

Kontsumorako bigarren kreditua:

- % 10eko ITNa
- Ez dago komisorik, ez aparteko kosturik
- % 10,50eko UTBa
- Ordaindu beharrekoa, guztira: 3.165 €

Bi aukeretatik zein da onena?

Bigarren aukera hobea da, diru gutxiago ordainduko duzulako.

Nahiz eta ITN bera izan,
UTB txikiagoa da, ez baitago aparteko kosturik.

Gogoan izan:

Begiratu beti UTBari, guztira zenbat ordainduko duzun jakiteko.

